

BIDEO STREAMING

Zuzeneko emanaldiak



EKITALDI BATEN EMANKIZUNA BEHAR DUZU?

Kamera anitzeko grabazioak egin eta ekitaldiak zuzenean ematen ditugu. Era guztietako ekitaldiak ematen ditugu, hala nola kirol-lehiaketak, antzerki-emanaldiak, kontzertuak, biltzarrak, prentsurrekoak, online bidezko ikastaroak...

Gure kamerak zuzenean konektatu ditzakegu zure **Youtubeko kanalera edo Facebookera, edo bestela, streaming kanal pribatu baten bidez, zure webgunetik bertatik.**

Gaur egun, **streaminga funtsezko komunikazio-tresna da**, potentzial handikoa eta **inoiz baino eskuragarriagoa, jendearengandik gertuago egoteko eta ikus-entzuleak ugaritzeko.**



DENAK DIRA ABANTAILAK

Online emankizunek **komunikazio-eskaera berrietarako irtenbideak** eskaintzen dizkizute, **zure ikusleak edo bezeroak fidelizatzeko, sare sozialetarako edukia sortzeko, zure negozioa merkatu berrietara irekitzeko, online hemerrotekak sortzeko...**

Erraza eta eskuragarria da.

Online zuzeneko bat egitea guztion eskura dago, eta erraz gainera. Gure taldeak laguntza teknikorik eta aholkularitzarik onena emango dizu, zure ekitaldia ahalik eta kalitate handienarekin irits dadin zure publikoarengana.

Jar zaitez gurekin harremanetan hemen





EXPERIENTZIA HANDIA DAUKAGU

10 urte baino gehiago daramatzagu teknologia hau gure bezeroei eskaintzen, eta teknologia hori inplementatu eta garatu egin dugu, kalitate-eta profesionaltasun-estandar handienak dituen produktu bat eskaintzeko.

Ikus-entzunezko produkzioko profesionalen sare bat gara, eta **kamera-operadoreek, emisio-zuzendariak, komentaristek, streaming-operadoreek, argiztapen-espezialistek, soinu-teknikariek, diseinatzaile grafikoek eta editoreek osatutako talde esperientziadun eta sortzailea osatzen dugu**, zure beharretara egokitutako ekoizpena sortzeko.

KIROL EKITALDIAK

Outdoor edo indoor, espazioa ez da arazoa. Era guztietako kirol-emanaldiak eskaini ditugu: beisbola, softbola, karatea, squash-a, pilota, patinajea... Zure kirol-ekitaldirako estaldurarik onena eskaintzen dizugu.



BILTZARRAK/ HITZALDIAK

Streaminga tresna egokia da estaldura eta zerbitzu gehigarria emateko agenda arrazoiengatik edo distantziagatik biltzarrera joan ezin diren profesional guztiei. Gainera, zuzeneko emanaldiak ekitaldia grabatzea bermatzen du, eta, beraz, gerora hedatu daiteke erabiltzaile-sarbidea eta pasahitza dituen atari pribatu baten bidez.



KONTZERTUAK/ ANTZEZLANAK

Gaur egun, edukiera eta mugikortasun arrazoiak direla eta, jende ugari dago bere gustuko ekitaldira joan ezin daitekeena. Inor kanpoan ez uzteko, zure ikuskizuna zuzenean ematea proposatzen dizugu, agertokitik etxe guztietako egongelara. Sarbide pribatuen bidez, zure webgunetik edo zure jarraitzaile gehien biltzen dituen plataforma sozialetik.



PRESTAKUNTZA- GUNEAK IKASTAROAK, WEBINARAK EDO ENTRENAMENDUAK.

Aurrez edo zuzen-zuzenean grabatutako errealizazioak, euren marketin-estrategiarako online zerbitzuak behar dituzten enpresa, marka edo pertsonentzat.



AUKERATU ZURE KONFIGURAZIOA

Oinarrizkoa

Kamera bakar batekin ematen da, errealizatorik eta grafismorik gabe, giro-audioa grabatzeko aukerarekin edo aretoak duen soinu-mahaitik.

Ertaina

Bi kamerarekin, operadore batekin eta errealizadore batekin. Giro-audioa grabatzeko aukera edo soinu-mahaitik eta mikrofonoetatik, grafismoak, irudiak ordenagailu eramangarritik edo hizlarien proiektoretik hartzeko aukera.

Osoa

Emanaldia 3 edo 4 kamerarekin egiten da, horietako bi xehetasun-planoetarako, operadore bat eta grafista bat, soinu-teknikari edo komentarista bat (behar izanez gero). Giro-audioa grabatzeko aukera, edo soinu-mahaitik eta mikrofonoetatik, grafismoak, irudiak ordenagailu eramangarritik edo hizlarien proiektoretik hartzeko aukera.

Zure beharretara egokitua.

Kontaiguzu zer behar duzun eta streaming-set bat diseinatuko dugu zure neurria.

[Jar zaitez gurekin harremanetan hemen](#)



HARREMANETARAKO

Gutaz zerbait gehiago jakin nahi baduzu,
jar zaitez harremanetan ikus-entzunezko
komunikazio-agentzia hauekin:

Muxer

COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL

xabier@muxuestudio.com

T. 626 40 87 80

